

Gizajo baten

EGUNKARIA

EGIA GORDINA



Jeff Kinney

ALBERDANIA

Gizajo baten


EGUNKARIA

EGIA GORDINA



Jeff Kinney

ALBERDANIA



JEFF KINNEY-REN BESTE LIBURUAK

Gizajo baten egunkaria (Greg Heffley-ren egunerokoa)


Gizajo baten egunkaria: Rodrick-en legea

Gizajo baten egunkaria: Hauxe besterik ez nuen behar

Gizajo baten egunkaria: Egun zakurrak

ITZULTZAILEA:

Aritz Branton



Gizajo baten EGUNKARIA

5

EGIA GORDINA

by Jeff Kinney



ARGITARATZAILEAREN OHARRA: Fikzio lan bat da hau. Izenak, pertsonaiak, lekuak eta gertakariak egilearen irudimenaren emaitza dira, eta fikzioaren legeen arabera erabilia daude. Beraz, antzekotasunik baldin badago benetako pertsonekin (hilak zein biziak), merkataritza guneekin, leku edo gertakariekin, halabeharri zor zaio erabat.

Jatorrizko izenburua:
Diary of a Wimpy Kid: The Ugly Truth

Ingelesez lehen aldiz 2010an Amulet Books-ek argitaratua
eta Harry N. Abrams Inc-ek inprimatua, New Yorken.
(Herrialde guztietarako eskubide guztiak erresalbatuta Harry N. Abrams, Inc.)

Testu eta ilustrazioen copyright-a © 2010 Wimpy Kid, Inc.
DIARY OF A WIMPY KID®, WIMPY KID™ eta Greg Heffley design™
Wimpy Kid, Inc-en marka erregistratuak dira
Eskubide guztiak erresalbatuta.

© Itzulpenarena: 2014, Aritz Branton
© Argitaraldi honena: 2014, ALBERDANIA S.L.
Istailaga, 2 behea C, 20304 Irún
Tf.: 943 63 28 14 Fax: 943 63 80 55
<alberdania@alberdania.net>
www.alberdania.net
ISBN digitala: 978-84-9868-757-8
ISBN papera: 978-84-9868-389-9
Legezko Gordailua: SS-1432/2014


TOMASI

IRAILA

Osteguna

Ia bi aste pasatu dira Rowley Jeffersonek, nire lagunik onena zenak, eta biok izugarrizko borroka hori izan genuenetik. Egia esan, uste nuen honezkero niregana arrastaka itzuliko zela; baina, arrazoiren batengatik, ez da horrelakorik gertatu.

Eta hasi naiz kezkatzen pixka bat, egun batzuk barru hasten baita eskola, eta, adiskidetasun hau bide onera itzuliko bada, zerbait gertatu behar da, eta azkar. Rowleyk eta biok BENETAN utzi badiogu lagun izateari, kontu txarra litzateke hori, elkarrekin gauza onak egiten genituelako.



Orain gure adiskidetasuna iraganeko kontua denez,
nire lagunik onena izateko norbaiten bila nabil. Arazoa
da nire denbora guztia Rowleyrekin inbertitu dudala,
eta ez dut inor pentsatuta haren lekua hartzeko.

Momentuz, dauzkadan aukerarik onenak Christopher
Brownfield eta Tyson Sanders dira. Baina badituzte
beren arazoak.




CHRISTOPHER




TYSON

Udako azken asteetan Christopherrekin ibili
naiz, batez ere aparteko eltxo-imana delako.
Baina Christopher eskolako laguna baino, udako
laguntxoa da.



Tyson nahiko jatorra da, eta bideo-joko berdinak ditugu gustuko. Baina galtzontziloak beheraino jaisten ditu pixa egiten duenean eta ez dakit hori jasan dezakedan.




Gainontzeko umeen artean, Fregley da bikoterik gabe dabilen bakarra, baina lagunik onenerako aukeren artetik aspaldi baztertu nuen.



Dena dela, atea pixka bat irekita utzi dut
Rowleyrentzat, badaezpada ere. Baina adiskidetasun
hau salbatu nahi badu, hobe du zerbait azkar egitea.

Kontua da, gauzak dauden moduan, ez duela oso
itxura ona emango nire autobiografian.




8. KAPITULUA

HAURTZAROA

Ume harengandik nahiko gertu bizi nintzen. Izena ez
dut oso ongi gogoratzen, uste dut Rupert edo Roger,
edo halako zerbait zela.

Baina nire zortearekin, ospetsu eta aberats bihurtuko naiz, eta ORAINDIK ERE Rowleyk nirekin probetxu ateratzeko moduren bat aurkituko du.




Larunbata

Ez dut uste gauzak Rowleyren eta nire artean aldatuko direnik, dagoeneko ordezko lagun bat aurkitu baitu. Edo, zehatzago esateko, GURASOEK aurkitu diote.


Azken asteotan, Brian izeneko nerabe batekin dabil.

Rowleyren etxera joaten naizen bakoitzean, etxe aurreko patioan dago, institutuko mutil baten itxura duen tipo batekin pilotan edo frisbee-arekin jolasten.



Beno, inguruetan galdezka aritu naiz, eta jakin izan dut Brian hori ez dela auzoko mutiko arrunt bat. "Cool Brian" izeneko enpresa batean lanean dabil, eta "anaia nagusiak" alokatzen dituzte, edo halako zerbait.

Are gehiago, lepoa jokatuko nuke tipoaren benetako izena ez dela Brian.




Amak Cool Brian kontua oso ideia ona dela uste du, neska-mutiloi miresteko moduko "eredu" bat ematen digulako. Eta ez al da haserretzekoa?, nire ikuspuntutik NI bainaiz Rowleyren eredua.



Eta orain, Rowleyren gurasok tipo bati ordaintzen diote nik urte hauetan guztietan DEBALDE egin dudana egiteko.

Benetan gogaikarri gertatzen zaidana zera da, ziur aski, Rowleyk ez dakiela gurasoek tipoari ordaintzen diotela harekin denbora pasa dezan. Eta ez dut uste Rowleyri axolako zaionik bost, enteratuko balitz.

Gaur, Rowley beste Cool Brian batekin ikusi dut; betikoak egun librea izango du. Baina agerian zegoen Rowley ez zela konturatzen ere.




Asteartea

Gaur aurreneko eskola-eguna izan da. Ez dut esanda izorratu nahi, baina badirudi urte izugarri ona izan litekeela niretzat.


Hiruhilekoko libururak jaso ditugu ikasgela nagusian.
Gure eskolak ezin ditu liburu berriak urtero
erosi, eta, hortaz, normalean bigarren eskukoak
egokitzen zaizkigu.

Baina zuk baino lehen beste hamar ikaslek erabili
duten liburu bat daukagunean, nahiko zaila da ezer
ikastea.




Normalean, oso zorte txarra izaten dut aurreko
liburuen jabeek dagokienez. Iaz, Bryan Gooten
matematika-liburua egokitu zitzaidan.


Esan dezadan horrek ez zuela nire "prestigioa" hobetu pasilloetan.



Baina aurten zorte itzela izan dut. Matematikako liburua jaso bezain laster, Jordan Juryrena izan zela ikusi dut. Jordan Jury hurrengo ikasturteko mutilik famatuena da, eta haren eskola-liburua eramateak fama-puxtarri UGARI ekarriko dizkit.



Besteak beste, Jordan famatua egin da izugarrizko festak antolatzen dituelako, eta oso zaila izaten da gonbidapena lortzea. Baina uste dut aljebra-liburu hau izan litekeela haren radarrean sartzeko behar dudana.



Jende famatuaz ari garela, bazkalorduan Bryce Anderson eta haren lagun-taldetik gertu eseri naiz gaur. Funtsean, Bryce nire ikasturteko Jordan Jury da, eta esaten duen guztiarekin ados dagoen jarraitzaile-talde bat dauka.




Eta mutil horiek Bryce leialak zaizkio, ez du inporta zeinen barregarri uzten dituen.



Kontua da Bryce Andersonek asmatu egin duela. Berak ez du benetako lagun onik BEHAR, goratu egiten duen morroi-talde bat duelako. Rowleyren eta bion adiskidetasuna ez zen ondo atera maila berean geundelako, eta ez dut uste eredu horrek ondo funtzionatzeko aukerarik duenik.

Ostirala

Gaur, eskolan Rowleyri entzun diot ikaskide bati esaten rock-kontzertu batera joango zela gavean. Egia esan, inbidia pixka bat izan dut, ez naizelako inoiz benetako kontzertu batera joan. Baina, nork jotzen zuen jakin ondoren, gonbidatua ez izateak poztu nau.



Hala ere, amorratzen nau Rowleyk nik baino hobeto pasatzeak. Egia esan, badirudi GUZTIEK nik baino hobeto pasatzen dutela egunotan.

Nire ikasturteko batzuek beren argazkiak online jartzen dituzte.